

EROSKETAK INTERNETEN

Erosketa bat egin nuen Interneten bidez aurretik ezagutzen nuen webgune batean, ez nongoak diren ez dakigun horietako batean.

Eskaria iritsi zenean konturatu nintzen produktu batzuk falta zirela. Enpresarekin harremanetan jarri nintzen, baina hasiera batean konponduko zutela zirudien arren, azkenean ez zidaten kasurik egin. Ez zen diru asko, baina amorrua ematen zidan kasurik ez egiteak.

Kontsumo Bulegora joan nintzen eta egun gutxi barru dirua itzuli zidaten. Harrituta geratu nintzen, egia esan, ez bainuen itxaropen handirik. Ni mareatu egin ninduten, Kontsumo Bulegoari berehala egin zioten kasu ordea. Oso kontent nago. Ez diru-kopuruagatik, baizik eta konpondu izanaren pozagatik. Ziur nago Kontsumo Bulegoan erreklamazioa egin izan ez banu, ez zidatela dirua itzuliko.